

## EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia (52 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2021eko martxoaren 5ean; Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzailearen 2021eko otsailaren 19ko 372/2021 Ebazpenaren bidez onetsia).

### Hirugarren probari buruzko oharra

#### **1.-Eguna eta tokia:**

Bigarren probaren noten behin betiko zerrendarekin batera ateratako oharrean ageri den bezala, oposizioaren hirugarren proba **2022ko martxoaren 7an** izanen da, **astelehena, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **ikasgelategiko 102. ikasgelan, Iruñeko Arrosadiko campusean**.

Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaporte edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

#### **2.-Praktikoa da proba, euskarazko testuak berrikusi eta zuzentzekoa, eta guztira 10 puntu daude jokoan.**

Bazterturik geldituko dira azterketan gutxienez puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak, hots, 5 puntu.

**Probak 90 minutu iraunen du.**

#### **3.-Probaren ezaugarriak:**

Proba paperean eginen da. Izangaiek testuan berean zuzenketak markatu, eta paragrafo bakoitzaren eskuinaldean adierazten ahalko dute zuzendu edo proposatu nahi dutena, baldin eta zuzentzekorik badago. Ezin da hiztegirik eraman probara.

Iruñean, 2022ko martxoaren 1ean.

Epaimahaiburua eta epaimahaiko kide idazkaria.



Fernando Rey

Patxi Salaberri